

LAN ATXIKIPENAK (desgaitasuna duten langile aktiboak)

Langile aktibo desgaituei artikulua honen 1. apartatuan aipatutako atxikipen ehunekoen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatuzetik ateratzen den atxikipen ehuneko horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

- Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile desgaitu aktiboa bada.
- Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasuna duen langile desgaitu aktiboa bada eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta 2022ko abuztuaren 8a, astelehena • 90 zk. 3/3 2022-02331 L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432 www.araba.eus kalifikatzeko prozedura ezartzen du) 2. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.
- Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile desgaitu aktiboa bada

Urteko etekinak (eurotan)		Desgaitasun maila	
Gutxienez	Gehienez	4.a apartatua	4.b apartatua eta 4.c apartatua
0,01	24.070,00	9	12
24.070,00	30.990,00	7	12
30.990,00	45.340,00	6	10
45.340,01	52.920,00	5	10
52.920,00	74.950,00	4	8
74.950,00	113.490,00	3	6
113.490,00	177.700,00	2	5
177.700,01	Hortik gora	1	3